



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **UDALBATZARRAK 2014ko IRAILAREN 30ean EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

2014ko irailaren 30ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Onintza Gorostidi Murua  
Jose Ramon Hernandez Cristobal  
Leire Otegi Elola  
Uxue Etxebeste Eizagirre

Bere ezin etorria azaltzen dute: Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
  - 2014ko uztailaren 29an egindako ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Berandegi baserriari loturik dauden Suspaitzaga, Elorzulo eta Algorri lursailak segregatzeko baimena eskaera, ondoren hauek elkarren artean lotzeko, J.L.B.**
- 5. Arritzaga-berri etxean terraza txiki bat etxeko albo batean ateratzeko obra baimena eskaera, A.A.**
- 6. Kapitan Tximista etxean andamio bat jartzeko obra baimena eskaera, K.J.**
- 7. Alkizako Herri Ostatuaren errentamentu eta ustiapenaren esleipena, hala bada.**
- 8. J.S.E. jaunak eginiko eskaera aztertu, hala bada.**
- 9. Bidatek eta Alkizako Udalaren arteko akordioaren onespena, Alkizako bida teknologiaren bidez egindako herriko hondakin urak arazteko plantan mantenu lanak aurrera eramateko.**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

**10. Beste batzuk.**

**11. Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...

**LEHENENGO PUNTUA**  
**AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2014ko uztailaren 29ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Akta Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

**BIGARREN PUNTUA**  
**ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

32/2014 Alkatetza Ebazpena, uztailaren 30ekoa, faktura txikien zerrenda onestea eta bere ordainketa burutu dadin agintzea, ebazten duena.

33/2014 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 4koa, Jose Maria Aranzabe Urruzola zinegotzia bigarren Alkateordea izendatzea, ebazten duena.

34/2014 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 4koa, Jose Maria Aranzabe Urruzola, bigarren Alkateordeari, Alkate-Lehendakariak, Alkate moduan dituen funtzio eta atribuzio guztiak eskuordetzea, ebazten duena.

35/2014 Alkatetza Ebazpena, abuzturaren 11koa, 2014ko lehenengo seihilabeteko uraren tasaren udal errolda onartzea, jendaurrean jartzea eta ordainketarako borondatezko epea irekitzea, ebazten duena.

36/2014 Alkatetza Ebazpena, irailaren 3koa, M.A.I. andreak eginiko eskaera onestea, SS-9138-Y ibilgailuari dagokion Trakzio mekanikodun zergaren itzulera onestea, ibilgailuari behin betiko baja emateagatik, ebazten duena.

37/2014 Alkatetza Ebazpena, irailaren 3koa, 2014ko uztailaren 1eko aginduaren babesean, Osasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Toki-erakundeei diru-laguntzak ematea arautzen duena, toki-esparruan jarduera fisikoa susta dezaten 2014an zehar, dagokion diru-laguntza eskaera egitea, ebazten duena.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

38/2014 Alkatetza Ebazpena, irailaren 3koa, Prozedura irekiz egindako Alkizako herri ostatuaren errentamndu eta ustiapenaren lizitazioa hutsik deklaratzeari, ebazten duena.

39/2014 Alkatetza Ebazpena, irailaren 3koa, Alkizako Herri Ostatuaren errentamendu eta ustiapena, publizidaderik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitzeko, ekonomiko eta administratibo baldintzen pleguari onarpena ematea, ebazten duena.

40/2014 Alkatetza Ebazpena, irailaren 3an, Yesilan enpresak aurkezturiko 2014/10 faktura onestu eta ordaindu dadin agintzea, ebazten duena.

41/2014 Alkatetza Ebazpena, irailaren 3koa, Beleburupe Guraso Elkarteari 250 eurotako diru-laguntza ematea, herriko jaietan umeentzako hainbat ekintza antolatzeagatik, ebazten duena.

42/2014 Alkatetza Ebazpena, irailaren 10ekoa, faktura txikien zerrenda onestea eta bere ordainketa burutu dadin agintzea, ebazten duena.

43/2014 Alkatetza Ebazpena, irailaren 16koa, M.S.A. andreari Garaikoetxe baserriko terrenoko lursailetik pinudi bat atera behar duenez, herri bidea erabiltzeko onespina ematea, ebazten duena.

44/2014 Alkatetza Ebazpena, irailaren 16koa, M.S.A. andreari Garaikoetxe baserriko terrenoko lursailetik pinudi bat atera behar duenez, herri bidea erabiltzeko onespina ematea, ebazten duena.

45/2014 Alkatetza Ebazpena, irailaren 22koa, faktura txikien zerrenda onestea eta bere ordainketa burutu dadin agintzea, ebazten duena.

46/2014 Alkatetza Ebazpena, irailaren 24koa, 2015 urterako Alkiza Udalerriko jaiegun bezala irailaren 8a astelehena finkatzea, ebazten duena.

### **HIRUGARREN PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

- AGOSTINI COTE BASQUE	600,00€
- ASTIASARAN SOINU KONPONKETA	726,00€
- EIZMENDI ARMATEGIA	69,50€
- GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA	56,00€
- JAM ESPRESIOKULTURALAREN PROMOZIOA	1.498,00€



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

- HERRI OSTATUA	1.202,90€
- UHLNA	423,50€
- ANTZA	408,98€
- URBIETA	169,40€
- GAUZONAK	156,15€
- AUDAX	526,04€
- YESILAN	12.572,51€
- TOLOMENDI	122,40€
- ARGITU	172,82€
- TOLOSALDEA GARATZEN	1.875,08€
- GARAJE IBARRA	578,30€
- AKABO	152,46€
- SEIKIN	458,59€
- LABUR	202,15€
- SOLRED	127,06€
- IZADI	3.008,54€
- VICENTE ERROTULAZIOA	721,16€
- ARGITU	156,50€
- TOLOMENDI	122,40€
- EBA ERKIZIA	142,32€
- MERKAOIL	895,40€
- FONTANERIA ANTZIETA	253,62€
- GARRA	1.021,48€
- IZADI	152,94€
- TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	-805,80€
- TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.146,71€
- TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.282,17€
- SOSFIRE	405,35€
- BULEGOAK	159,78€
- AUDAX	494,40€
- AUDAX	183,95€
- AUDAX	526,04€
- AUDAX	131,19€
- AUDAX	476,56€
- AUDAX	181,82€
- GAS NATURAL FENOSA	129,23€
- EUSKALTEL	129,19€
- MOVISTAR	205,50€
- MOVISTAR	236,85€

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **33.455,14** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

### **LAUGARREN PUNTUA**

**BERANDEGI BASERRIARI LOTURIK DAUDEN SUSPAITZAGA, ELORZULO ETA ALGORRI LURSAILAK SEGREGATZEKO BAIMENA ESKAERA, ONDOREN HAUEK ELKARREN ARTEAN LOTZEKO, J.L.B.**

Ikusirik J.L.B.I. jaunak eginiko eskera, non Berandegui baserriari loturik dauden "SUSPAITZAGA, ELORZULO ETA ALGORRI" terrenoak segregatzeko baimena eskaera egiten duen, ondoren euren artean lotzeko.

Ikusirik Berandegui baserriari loturik dauden terrenoen (segregatu nahi direnak) deskribapena ondorengoa dela:

.../...

*b)El terreno castañal llamado "SUSPAITZAGA", que confina por Norte, con terreno de la casería llamada Iribaiti; por Este, con el de Bengoetxea; por Oeste, con el de Basarte y María Antonena, y por Sur, con el de María Antonena; contiene con descuento de un camino que le atraviesa en su parte alta noventa y siete áreas.*

*c)El terreno castañal llamada ELORZULO, confinante por Norte y Este, con terreno de la casería llamada Araeta; por Oeste, con el de Perurena, y por Sur, con camino carretil público; contiene cincuenta áreas y veintitrés centiáreas.*

*f)Un trozo de terreno erial y peñascal llamado ALGORRI, procedente de los pertenecidos que fueron del Caserío Otamendi-azpikoa, de cabida de quinientas ocho y tercia posturas, equivalentes a ciento sesenta y siete áreas y setenta y cinco centiáreas, que linda por Este, con el terreno llamado Mendiolako-Txurru antes, hoy de Peru, de Don Jose Mugica, y por Sur, Norte y Oeste, con terrenos de la villa antes, hoy de la villa y caserío Lete.*

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

## ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.L.B. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da Berandegui baserriari loturik dauden "SUSPAITZAGA, ELORZULO ETA ALGORRI terrenoak", guztira 31.498 m<sup>2</sup> dituztenak segregatzeko baimena ematea, ondoren elkarren artean



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

lotzeko.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri J.L.B. jaunari ematea.

**BOSTGARREN PUNTUA**

**ARRITZAGA-BERRI ETXEAN TERRAZA TXIKI BAT ETXEKO ALBO BATEAN ATERATZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, A.A.**

Bertaratuek aho batez, gaia mahai gainean uztea erabakitzen dute, Udal Aholkulari Teknikoak dagokion txostena egiteko, dokumentazio gehigarria eskatu duelako.

**SEIGARREN PUNTUA**

**KAPITAN TXIMISTA ETXEAN ANDAMIO BAT JARTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, K.J.**

Ikusirik K.J. jaunak eginiko eskaera, Kapitan Tximista etxearen ondoan, tailer inguruan, Kanaloiak garbitu eta konpontzeko eta solibo muturrak margotu eta txukuntzeko andamio bat jartzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: K.J. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da, Kapitan Tximista etxearen ondoan, tailer inguruan, kanaloiak garbitu eta konpontzeko eta solibo muturrak margotu eta txukuntzeko obra baimena ematea. Betiere, lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri K.J. jaunari ematea.

**ZAZPIGARREN PUNTUA**

**ALKIZAKO HERRI OSTATUAREN ERRENTAMENTU ETA USTIAPENAREN ESLEIPENA, HALA BADA**

Ikusirik 2014ko irailaren 3an Alkate-Lehendakari ebazpenez 39/2014,



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Alkizako herri ostatuaren errentamendu eta ustiapena, publizidade gabeko prozedura negoziatuaz esleitzeko, ekonomiko eta administratibo baldintzen pleguaren onarpena eman zitzaiola.

Ikusirik R.E., J.J.V. eta J.L.G. jaunei prozedura honetan parte hartzeko gonbidapenak bidali zitzaizkiela, hiru hauek prozedura honetan parte hartzeko bere nahia agertu baitzuten. 7 eguneko epea eman zitzaielarik euren proposamenak aurkezteko.

Ikusirik, goian aipatutako epean bi interesatu aurkeztu zirela, kontratazio mahaiak eginiko azterketaren ondoren, J.J.V. jaunari behin behineko esleipena egitea proposatzen delarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek , aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.-. J.J.V. jaunari Alkizako Herri Ostatuaren errentamendua eta ustiapena behin-behinekoz esleitzea.

BIGARRENGOA: J.J.V. jaunari jakinarazi Alkizako Udalean aurkeztu beharko duela, jakinarazpen hau jasotzen duen hurrengo egunetik hasita 7eguneko epean ondorengo dokumentazioa:

- Baldintza-agiri honetan eskatutako gainerako dokumentu guztiak.
- Aseguru-poliza, baldintza-plegu honetan araututakoaren arabera.
- Behin betiko bermea osatua izanaren ziurtagiria.

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri esleipen honetara aurkeztutako interesdun guztiei ematea.

#### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

#### **J.S.E. JAUNAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU, HALA BADA**

Berlaratuek aho batez, gaia mahai gainean uztea erabakitzen dute, gaiari buruz informazio gehiago lortu arte.

#### **BEDERATZIGARREN PUNTUA**

**BIDATEK ETA ALKIZAKO UDALAREN ARTEKO AKORDIOAREN ONESPENA, ALKIZAKO BIDA TEKNOLOGIAREN BIDEZ EGINDAKO HERRIKO HONDAKIN URAK ARAZTEKO PLANTAN MANTENU LANAK AURRERA ERAMATEKO**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Ikusirik, Bidatek eta Alkizako udalaren arteko akordioa, non Alkizako bida teknologiarren bidez egindako herriko hondakin urak arazteko plantan mantenu lanak aurrera eramateko, horretarako kontratu bat prestatu da, batzarkideek honen berri hartzen dutelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DUTE:

**LEHENA:** Bidatek eta Alkizako udalaren arteko akordioaren onespena, non Alkizako bida teknologiarren bidez egindako herriko hondakin urak arazteko plantan mantenu lanak aurrera eramateko. Bere kostua 390 euro (BEZ-a kanpo) hilean izango da. Zerbitzua 36 hilabeteko iraupena izango du.

**BIGARRENA:** Udal Aurrekontuetan partida nahikoa aurrikustea.

**HIRUGARRENA:** Alkate-Lehendakaria ahalmenu aipaturiko kontratua sina dezan.

**LAUGARRENA:** Erabaki honen berri Bidatek ingenieria ambiental, S.L. –ri ematea.

#### **HAMARGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

#### **10.1. A.M.B. ETA P.A.A. JAUNAK AURKEZTURIKO KEXEN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik A.M.B. jaunak aurkezturiko salaketa, non bere bizilaguna den P.A.A. jaunak egin dituen hainbat lan direla eta bere jabetzan hainbat kalte izan dituela jakinaraziz.

Ikusirik P.A.A. jaunak aurkezturiko kexa, non bere bizilaguna den A.M.B. jaunari esan zizkiola hainbat lan egin behar zirela, herri bidetik kamioi edo traktore bat pasatzeko eta azken honek ez ziola kasurik egin.

Udalbatza honek, A.M.B. eta P.A.A. jaunek Udal honetan aurkezturiko bi idatziak sakonki aztertu ondoren, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

**LEHENA:** A.M.B. eta P.A.A. jaunei jakinarazi, Legeak agintzen duenaren arabera, herri bideak bere zabalera, hesiak bere distantzia eta altuerara egokitu





ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

behar direla.

BIGARRENA: A.M.B. eta P.A.A. jaunei jakinarazi, herri bideak irekita egon behar direla.

HIRUGARRENA: P.A.A. jaunari jakinarazi, herri bidean, udalaren baimenik gabe egindako lanak eta ondokoari sortutako kalteak bere onera etortzeko dagokion lanak burutu beharko dituela.

LAUGARRENA: A.M.B. eta P.A.A. jaunei jakinarazi, herri bideari dagokion zabalera lanak udalak burutuko dituela.

BOSTGARRENA: A.M.B. eta P.A.A. jaunei jakinarazi, arauak esaten dutena betearazteko arduratik at eta, kasu honetan, herri bidearen zabalera mantentzeko lanetik kanpo, Udalak ezin dezakeela sartu auzokideen arteko bestelako gatazkatan.

SEIGARRENA: Erabaki hauen berri A.M.B. eta P.A.A. jaunei ematea.

## **10.2. AIZTONDOKO HELDUEN LIBURUTEGI AMANKOMUNAREN AURRE- AKORDIOAREN ONESPENA, HALA BADA**

Alkate-Lehendakariak batzarkideei aurkezten die Aiztondo Helduen liburutegi amankomunaren proiektua, bertaratuei proposatzen dielarik ondoren aurkezten duen aurre-akordioaren onespena. Aipaturko aurre-akordioa ondorengo izanik:

### **“AIZTONDOKO HELDUEN LIBURUTEGI AMANKOMUNA AURRE-AKORDIOA**

#### **AURREKARIAK:**

*1.-Zizurkilgo Udalak AIZTONDOKO HELDUEN LIBURUTEGI AMANKOMUNA sortzeko hausnarketa egin du. Proiektu berritzaile eta eredugarria da eta liburu munduan erreferente bilakatuko da bailara osoan.*

*2.-Hasierako oinarrizko proiektua aurkeztu da, hots: ideia bera eta abiapuntu izango den plano bat. Ekimenean parte hartuko duten herri guztien artean ideia materializatu beharko da, guztion ekarpen eta parte-hartzearekin ekimena bera aberastuko baitugu.*

*3.-Bai Gipuzkoako Foru Aldundia eta baita Eusko Jaurlaritzen hasierako ideia aurkeztu da eta proiektu pilotu eta eredugarri bezala onartu dute. Instituzio hauen babesa lortu da.*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

### **AKORDIOAK:**

1.-Zizurkil, Asteasu, Aduna, Alkiza eta Larraulgo Udalek AIZTONDOKO HELDUEN LIBURUTEGI AMANKOMUNA sortzeko beharrezkoak diren lehenengo pausoak emateko AKORDIOA hartzen dute:

1.1.-Zizurkilgo Udalak aurkeztu duen Aiztondoko Helduen Liburutegi Amankomunaren oinarrizko ideia landu eta aportazioak egitea.

1.2. Zizurkilgo Udalak Joxe Arregi Plazan duen lokalean lekutzeko akordioa hartzen dute.

1.3. Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren aurrean diru-laguntzak lortzeko behar diren tramitazioei hasiera ematea.

1.4. Aiztondoko Helduen Liburutegi Amankomunaren kudeaketa eta antolaketaren inguruan akordioak lortzea.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### **ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: Aiztondoko Helduen liburutegi amankomunaren aurre-akordioa bere osotasunean onestea.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria den Jon Umerez Urrezola jauna, ahalmentzea, aurre-akordio hau sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri Zizurkilgo Udalari ematea.

### **HAMAIKAGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.00 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)